



AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE UDAL TALDEA GRUPO MUNICIPAL AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE

LASARTE-ORIAKU UDALBATZARI

HURBILEKO ETA PARTE-HARTZAILEA IZAN BEHAR DUEN UDALTZAINGO-EREDU BATI BURUZKO MOZIOA

“Udaltzaingoaren barruan, bada kontzeptu bat ezinbestean behartzen duena antolaketa eta lan-eredu berria hartzera; “auzoko udaltzain”aren edo, zehatzago esanda, “auzozain”aren kontzeptua da hori –“auzo polizia” ere esaten zaio–, eta horren gakoa hurbiltasuna da, auzokoekin komunikazioa izatea, auzoko entitateekin eta ekipamenduekin harreman estuan lan egitea; modu horretan, arreta eta zerbitzua hobetu eta problemak garai detektatu ahal izango dira. Hala, udaltzaina erreferente hurbila bihurtzen da herritarrentzat, eta, bizikidetzarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten arazoak planteatzeko beharra dutenean, badutela norengana jo sentitzen dute.

Uste osoa dugu udaltzaingoak bakarrik aplikatu dezakeela ikuspegi hori, eta onik burutu; esan nahi da, gure iritzira, herriko polizia municipalak ez beste inork ezin duela bete, ondo eta efikaziaz, auzozainaren eginkizuna. Udaltzaingoak eskuduntza eta eginkizun asko hartzen ditu bere gain herrian, eta erantzun egokia eta efikaza eman behar die herritarren eskakizunei eta demandei. Eguneroko martxan, udalaren esparruan, auzoetatik, eskatzen dituzte herritarrek irtenbide urgentiak eta efikazak herrian sortzen diren problemetarako, direla trafikokoak, direla udal-ordenantzen eta ingurumenaren kontrako arau-hausteak edota soinuek, kaleko salmentak eta bestelako istiluek eragiten dituztenak, eta erantzunak ere esparru horretanxe eman behar dira, udal-mailan, auzoetatik.

Transbertsalitatea. Erantzun bizkorra eta efikaza emate aldera, beharrezko izango da harreman zuzena ezartzea beste udal-sail eta zerbitzuekin, eta, horretarako, ondo ezagutu beharko dira arlo desberdinetako problemak, urgentzia sozialak, garbiketa-beharrak, herriko altzarietako gorabeherak eta beste. Gure iritziz, funtsezkoa da udaltzainek ondo erreparatzea eta arreta berezia jartzea bizikidetzako tirabirei eta gatazkei, eta garrantzi betekoa da, era berean, laguntza-talde bat eduki dezaten, Udalaren gainerako zerbitzuekin batera, auzoko premiei erantzuteko, bai eta horien segimendua egiteko ere. Aldi berean, indartu beharra dago koordinazio-lana auzoekin eta udal-zerbitzuekin, problema konplexuei konponbide transbertsalak bilatzeko.

Ekintza prebentiboak eta proaktiboak. Behar den prebentzio-estaldura lortzeko eta behar duenari behar denean lagundu ahal izateko, udaltzainek kaleak etengabe patruilatu beharko dituzte, kontsultei eta erreklamazioei kasu egiteko, iradokizunak jasotzeko, eta, azken finean, auzoko bizi-kalitatea kaltetu edo bake-giroa aztoratu dezaketen istilu eta gatazka guztiak baretzeko. Bizikidetzaz zaindu eta duintasun profesionalari eutsi diezaioten, ahal den espaziorik handiena utzi beharko diegu udaltzainen irudimenari, senari eta inteligentziari, betiere sortu daitezkeen problemei konponbideak alde aurretik topatzeko helburuarekin. Udaltzaingoak prebentzio proaktiboaren bidez saiatu behar du Herri Segurtasuna mantentzen, eta ez da nahikoa horretarako prebentzio tradizionala; hau da, auzoak erne zelatatzea, arau-haustea behin gertatu eta gero ikusi eta salatzea. Sarritan, udaltzainen presentziak, delituzko ekintzak gertatu daitezkeen tokian, galarazi egiten ditu halakoak egitea; presentzia hori, nolana ere, prebentzio-modu bat da, ikaragarri laguntzen baitu delituak murrizten, herritarrekin eta horien elkarteekin etengabe harremanetan egotean. Polizia presentzial, prebentibo eta proaktiboaren ikuspegi hori hartuz, eta antolaketa-modurik efizienteena aztertuz, udaltzaingoa hurbileko eta eraginkorra izatea lortuko dugu, udaltzainak auzozain egiazkoak izango baitira hala; hau da, herritarrengandik hurbil daudenak eta efikazak.

Gehiegizko burokrazia. Bestetik, etorkizunera begira, bada beste lehentasun bat: burokrazia administratiboaren gehiegizko karga arintzea. Horretarako, produkzio garbia sortu behar da, burokrazia-sistema aspergarri eta astunaren ordez teknologia informatikoak baliatuz, administrazio-prozesuak arintzeko. Tresna informatikoei esker –ukipen-pantailak eta nabigatzaileak, datu-sareak, dokumentuen egiaztagailuak, material-detektatzaileak, PDA matrikula-irakurgailuak, etab.– ikaragarri murriztuko dira paperak; asko arinduko

da gehiegizko burokrazia, eta informazioa denbora errealean eta segurtasun-bermeekin eman ahal izango da. Horregatik, gaurko denboretara eta eskakizunetara gehiago hurbilduko den polizia-antolaketa eredu bat aztertzea da gure proposamena. Proposatzen dugun antolaketa-eredu horrek egitura malgua izan behar du, behar sozial berriei erantzun eta aurrea hartzeko gauza izan dadin; bideratuago egon behar du prestazio eta zerbitzuetara –eguneroko lana bulegoetatik kanpo, auzoetan, eginez–, eta ez hainbeste sail formaletan ardaztua egotera. Aldi berean, informazioaren teknologien alde apostu egin behar du, administrazioaren burokrazia astuna konpontzeko.

Hurbiltasuna eta parte-hartzea. Herritarrek onesten badute bakarrik lortuko da zerbitzuan bikaintasuna; hau da, herritarrek zerbitzua bera onartzen badute. Udaltzaingoak organo efizientea izan behar du, autokritikoa, aldaketetara irekia eta herritarren behar eta espektatibei erantzuteko prestatua, zeren herritarrak berak izango baitira aliaturik handienak bai segurtasun- eta bizikidetzeta-problema diagnostikatzean, bai horiei konpontzeko planteamendua egitean ere. Hori dela-eta, komunikazio-kanalak eta parte-hartzeko bideak indartu behar dira, eta bi noranzkoko komunikazioa, joan-etorrikoa, ezarri behar da, auzoko bizilagunek beren segurtasunean modu aktiboan parte hartu dezaten eta nolako udaltzaingoa nahi duten argitzeko iritzia eman dezaten.


Inguruko udalerriak. Inguruko udalerri batzuetan martxan jarria dute jada auzozainen eredu hori –udaltzainak, auzoetan, herritarrekin hurbiltasunez lan egitea–; esate baterako, hala egin dute Erreterian edo Eibarren, eta uste dugu ondo legokeela, herri horietako esperientzia jasoz, sistema bat egokitzea eta diseinatzea Lasarte-Oriarako propio. Gaur egun, gure udaltzaingoa lau kideetako taldeetan antolatuta dago, eta lau talde horietan oinarritzen da lan-egutegia. Nola normalean binaka patruilatzen duten, udaltzaingoak pentsatzen du udaltzain bat gehiago egon beharko lukeela taldeko, oinarritzko zerbitzu txukun bat emateko gutxieneko kondizioetan; modu horretan, ez litzateke Udaletxea inoiz arretarik gabe utziko –hala, 26 udaltzainekoa izango litzateke plantilla, 21ekoa izan beharrean–. Gureak baino biztanle gutxiago duten udalerri batzuetan, Andoainen edo Azpeitian, konparazio baterako, gurearen antzeko plantilla dute, eta ez dira 15.000 biztanlera iristen. Lasarte-Oriak 18.000 biztanletik gora ditu. Beste udalerri batzuek, Hernanik eta Tolosak, esaterako, gure herriak baino biztanle gehixeago dute doi-doi, eta 31 udaltzain ditu aurrenak eta 29 bigarrenak.

Eskasia horrek, beste gabezia eta urritasun kronikoekin batera, batez ere bitarteko eta baliabide faltarekin zerikusia dutenak –udal-garabi baten falta nabarmena, adibidez, edo lan-eremuaren segurtasun-kondizio hala moduzkoak– azterketa tekniko bat egiteko beharra proposatzera premiatzen gaitu; azterketa tekniko horrek egoera zorrotz aztertu beharko du, eta Lasarte-Oriak, ondo funtzionatzeko, zenbat udaltzain behar dituen zehaztu; gainera, kontuan hartu beharko du zein den kokalekurik egokiena udaltzaingoarentzat eta zein baliabide eta bitarteko jarri behar diren problemarik urgenteenei ekiteko.

Udaltzaingoa bizkorrago, efikazago eta hurbilagoa izan dadila nahi dugu, eta egon dadila zerbitzatzen duen gizartean txertatuago eta integratuago; hori guztia lortzeko asmoarekin Ahal Du Lasarte-Oriako udal-taldeak honako akordio hauek har ditzala proposatzen dio Udaltzari:

1. Udal-gobernuari premiatzea azterketa bat edo plan zuzentzaile bat egin dezan, udaltzaingoaren behar eta baliabide urgenteen eta premiazkoenak aztertzeko, eta plantilla zenbat udaltzainez osatua egon behar duen zehazteko; halaber, azterketa horrek azaldu dezala zer antolaketa-modu den egokiena, zerbitzu egoki bat emateko, auzoko udaltzaingo-ereduan oinarriturik, s ezaugarri printzipalenak hurbiltasuna, enpatia eta parte-hartzea diren.
2. Aztertzea, 2019ko udal-aurrekontuetan, ba ote dagoen modurik udaltzaingoari esleitu eta izendatzeko lehen esandako azterketa horrek proposatu ditzakeen baliabideak eta plazak.

Lasarte-Orian, 2018ko irailaren 5ean.
Izenpetzailea.: Arkaitz Naya



Ahal Du Lasarte-Oria Puede-ko bozeramailea